



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:

2026AAH20024

Lankidetza Hitzarmena Convenio de Colaboración

Espediente zk.: 2026AAH20024

Gaia: DIRULAGUNTZA 2026. Urterako

Eskatzailea: KATRAMILA ANTZERKI ETA DANTZA TALDEA **IFK:** G75063263

ZUZENKO DIRU-LAGUNTZA NOMINATIBOA EMATEKO HITZARMENA

Andoainen, sinaduraren datan.

BILDU DIRA:

Batetik, Marta Lasa Goñi and., Andoaingo Udaleko Hezkuntza eta Kulturako Zinegotzi Ordezkarari gisa.

Bestetik, Uxue Ugartemendia Zubeldia and., adinez nagusia eta ***9817** zenbakidun NAN duena, Katramila Antzerki eta Dantza Taldearen lehendakari gisa.

Bertan da baita ere Udaleko Idazkaria den Unai Rekondo ekintzaren fede emateko.

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Andoaingo Udalaren izenean, Alkateak emaniko eskuordetzaren ondorioz jasotako eskumenak baliatuta.

Bigarrena, Uxue Ugartemendia Zubeldia and., bere izenean, eta Katramila Antzerki eta Dantza Taldearen ordezkari, IFZ. G75063263 duena, eta helbidea Manuel Lekuona Plaza, 7 beheera ezk., 20140 Andoain (Gipuzkoa).

Bi aldeek elkarri nahiko gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko eta horretarako honakoa adierazten dute:

Aurrerakinak:

1. Katramila Antzerki eta Dantza Taldeak interesa duten kultur jarduerak egiten dituela eta Kultura ekimenak eta herritarren esku-hartzea bultzatzen duen kultur erakundea dela.
2. Katramila Antzerki eta Dantza Taldeak herriko kultur sustapenean biziki laguntzen du, herrian jarduerak programatuz.
3. Hitzarmen honen helburua Katramila Antzerki eta Dantza Taldearen eta udalaren arteko harremana erregulatzea da, 2026. urteko kultur jarduerak egiteko.
4. 2026/04/17ko datarekin, Katramila Antzerki eta Dantza Taldeak 2026. urterako prestatutako



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:

2026AAH20024

Lankidetza Hitzarmena Convenio de Colaboración

plangintza edo programa aurkeztu zuen. Burutu nahi dituzten jarduerak martxan jartzeko gastuei aurre egin ahal izateko, 4.092euro eskatzen dituzte.

5.- Katramila Antzerki eta Dantza Taldeak aurkeztutako eskaeran jarritako 2026. urteko jarduerak antolatzeako konpromisoa hartu dutelarik.

6. 2026ko Andoaingo udaleko aurrekontuetan, Katramila Antzerki eta Dantza Taldearen izenean, partida bat dago 1 0500.481.338.00.14.2026 zenbakia duena, 4.092 eurotako kopuruarekin.

7. Katramila Antzerki eta Dantza Taldearen proposamena azterturik, aurkeztutako eskaera ikusita, eta gastuen eta dirusarreraren behin betiko aurrekontua kontuan hartuta, 2026. urteko aurrekontuen kargu, 4.092 euroko dirulaguntza ematea onartzea, 2026. urteko jarduera burutzeko.

Azaldutakoaren arabera Andoaingo Udalak eta Katramila Antzerki eta Dantza Taldeak erabaki dute hitzarmen hau sinatzea, eta Hitzarmenak ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldean konpromisoak diru-laguntza ematea burutu dadin.

KLAUSULAK:

Lehenengoa: Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da Katramila Antzerki eta Dantza Taldeak 2026. urtean zehar aurreikusita duen kultur-programa antolatzeako gastuei aurre egiteko onartutako 4.092 eurotako dirulaguntzaren baldintzak eta konpromisoak eratzea.

Dirulaguntza hau maiatzaren 27ko 1500/2026 alkatetza dekretu bidez onartu den Dirulaguntzen 2026-2028ko Plan Estrategikoan sartuta dago

Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa.

Diru-laguntzaren gehieneko diru-kopurua 4.092 eurokoa izango da, udal aurrekontuetako 1 0500.481.338.00.14.2026 partidaren kargura joango dena. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da 2026. urterako Andoaingo Udalaren Aurrekontua Orokorrean.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena

Lankidetza hitzarmen hau indarrean sartuko da hitzarmena sinatzen den egunetik eta 2026/12/31n, horren likidazio zuriketa egiten denean amaituko da.

Laugarrena: Andoaingo Udalaren konpromisoak

a) Andoaingo Katramila Antzerki eta Dantza Taldeari 4.092 euroko diru-laguntza ordainduko zaio era honetan: 2.455,20 euro (%60), hitzarmena sinatu ondoren, eta dirulaguntzaren diferentzia epean



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:

2026AAH20024

Lankidetza Hitzarmena Convenio de Colaboración

aurkeztu behar duten likidazioa eta zurigarriei oniritzia eman ondoren.

b) Udalak beharrezkoak diren kasuetan udal materiala utziko dio elkarteari.

c) Udalak ekimenak burutzeko beharrezko baimenak emango ditu.

Bosgarrena: Diru-laguntzaren entitate onuradunak harturiko konpromisoak.

Hitzarmen honi jarraiki diru-laguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) Katramila Antzerki eta Dantza Taldeak ekimena garatuko du, aurkezturiko dokumentazioaren arabera. Proiektua hitzarmen honekin batera doa eranskin gisa, eta aurreikusiriko epean gauzatuko da.

b) Beharrezkoak diren udal baimenak edo bestelakoak eskatzea.

c) Ordenantzan eta Legean onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Diru-laguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta diru-laguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.

- Beste diru-laguntza batzuk jasotzen baditu diru-laguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.

- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako kontu-ikuskaritza eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.

- Jasotako diru-kopuruen aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

d) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20024

Lankidetza Hitzarmena Convenio de Colaboración

e) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak, 1/88 udal ordenantza, Andoaingo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituenak:

Elkarteak argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du.

Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz zabaldutako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari emango zaio lehentasuna.

Espresuki haur eta gaztetxoentzat diren mezuak nahiz ekitaldiak euskaraz egingo dira.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekoak antolatzen direnean euskara eta beste hizkuntzen arteko oreka bermatuko da. Eskaintzaren erdia, gutxienez, euskaraz izango da, eta gaztelaniaz egiten direnetan euskararen presentzia bermatuko da (idatzizko euskarriak, informazio osagarria, euskaraz galdetzeko aukera bermatzea...). Horrelakoetan aurrez egiten diren iragarkietan zehaztuko da zein hizkuntzatan izango den.

g) Berdintasunerako klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarritakoak.

Kontuan hartuko da aipatu plana egiterakoan oinarri izandako erreferentzia aipagarrienak bi hauek direla: EAEko Emakume eta gizonen berdintasunerako Legea eta EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Plana. 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza eta ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

Udalak bultzaturiko edo hartutako genero indarkeriaren aurkako neurri bereziak edo martxan jarritako kanpainak zabaltzen parte hartze aktiboa izango da.



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:

2026AAH20024

Lankidetza Hitzarmena Convenio de Colaboración

h) Ingurumenaren alorreko klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, honek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugak gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, %100ean birziklaturiko papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeetatik inprimatuta.

i) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irradi, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Andoaingo Udalaren lankidetza, esaldi honen arabera: "Andoain Udalaren laguntzarekin". Esaldi horri Herribilduaren armarrria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarria Andoaingo Udala denean, hala nola babesia beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu honetan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

Egitarauetan, kartel nahiz programetan, Andoaingo Udalaren laguntza azalduko da modu berezi eta argian.

Edozein euskarri inprentara bidali aurretik, Udalari PDF formatuan bidaliko diote honek azken oniritzia eman dezan eta sareetan zabaltzeko dezan.

Behin inprentatik jaso ondoren, paperezko euskarriaren 8na ale Bastero Kulturgunean egoitza duten Udalaren Kultura Lan saileko bulegoetan utziko dira.

Seigarrena: Diru-laguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa.

Andoaingo Udalak, Kultura eta Hezkuntza saileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta diru-laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, 2027/01/15 baino lehen, Udalean aurkeztu beharko du diru-laguntzaren xede duen proiektuaren garapenaren memoria bat. Bertan Katramila Antzerki eta Dantza Taldearen ekimena burutzeko aurreratu diren gastuei buruzko azalpenak emango dira.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, diru-laguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako diru-laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

- Gastuak: izandako gastu guztien likidazio zerrenda bat aurkeztuko da eta zerrendan azaltzen den



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20024

Lankidetza Hitzarmena Convenio de Colaboración

zenbakiarekin bat etorri behar du gastu hori zuritzeko aurkeztu den fakturak edo tiketak. Bazkari eta afarien fakturen kasuan, jardueraren ordainketa modu bakar gisa azaltzen denean onartuko dira bakarrik.

Ez dira kontutan hartuko, txosnarako egin diren material gastuak (edallontziak, edariak, janariak, e.a.)

Likidazioetan ondorengo zurigarriak onartuko dira:

** Nominak.*

** Gizarte Segurantzako RLC edota RNT dokumentuak.*

** Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenari buruzko atxikipenen aitorpenaren 110 eta 111 dokumentuak.*

** Finantza-erakundeek egindako Banku zorpetzeko karguen ziurtagiri edo dokumentuak, faktura baten datuak dituztenak, zenbakia eta seriea izan ezik.*

** Faktura sinplifikatuak edo tiketak. Bakarrik onartuko dira **400** eurotik beherakoak. Beti ere datu fiskalak barne dituela, ematen duena ondo identifikatuta egon behar du, eta erosketaren kontzeptua identifikatuta azalduko da. Ez dira eskuz idatzitako oharrik onartuko.*

** Fakturak. Informazio fiskala osoa jaso beharko dute; hau da: ematen eta jasotzen duenaren identifikazioa (izen deiturak, NA edo IZK, helbidea, telefonoa); faktura zenbakia, data, eta BEZ.*

** Faktura pertsonalak. Faktura emailearen informazioa jasoko dute (izen-abizenak, NA, helbidea, telefonoa), eta PFEZean % 2ko gutxieneko atxikipena izango dute.*

** Sariak: 300€ edo gutxiagoko sarien kasuan, banku transferentziaren ordainagiria eta jaso-agiria aurkeztu beharko dira, eta 300€ baino gehiagoko sarien kasuan, gainera, dagokion atxikipenaren aitorpenaren Foru Ogasuneko egiaztagiria aurkeztu beharko da.*

- Sarrerak : izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa idatziko ere. Sarrera egiaztagarri ofizialik ez dagoenean, emalearen edo hartzailearen zinpeko idatzia aurkeztuko da.

Elkarte bakoitzak du SGAE erakundeari dagokion kopurua ordaintzeko erantzukizuna.

Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin.

Hitzarmen honek arautzen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, diru-laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Andoaingo Udaletik eta/edo



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2026AAH20024

Lankidetza Hitzarmena Convenio de Colaboración

bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzat hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo diru-laguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

Zortzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru-laguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzan eta Legean. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arrazoiak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

Bederatzigarrena: datu pertsonalak babestea.

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzea.

Hamargarrena: Lan arriskuen prebentzioa.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

Hamaikagarrena: Araubide Juridikoa.

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Andoaingo udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:

2026AAH20024

Lankidetza Hitzarmena Convenio de Colaboración

Hamabigarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa.

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena.

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den idazpuruan.

**Katramila Antzerki eta Dantza Taldearen
Izenean**

Uxue Ugartemendia Zubeldia

Hezkuntza eta Kulturako Zinegotzi Ahaldua

Marta Lasa Goñi

Fede ematen du,
UDALEKO IDAZKARIA
Unai Rekondo



EKS | CSV: ESKU52161070-31f1-4f74-9f1a-1c76932de1e9

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>